

TANTA BAT

Maialen Badiola Aguirregomezcorta, 17 urte

Eibar

Tanta bat,
bakarra.

Tanta bakar bat.

Tanta txiki bakar bat.

Tanta txiki bakar bat eta gailenduko da edukina.

Tanta ziztrin batek mukurutu dezake.

Isuri, bai:

eusten duen zera hortatik kanporatu,

irten,

atera,

jalgi,

ihes,

hanka,

alde eginarazi.

Tanta bakar bat,

mila atomo,

mila bizi zati nimiño,

mila gauza.

Tanta ederra, zatarra,

handia, txikia,

berariazkoa,
tristeia, alaitasunez betea,
baliogabea, potoloa,
osasuntsua, hilgarria,
erakargarria, mingarria,
etsipentsua, mingotsa,
garratza, goxoa...

Ur tanta bakar bat:
ezereza.

Ehundaka, milaka ur tanta:
euri zaparrada,
euritea,
mila deabru.

Itogina daukagu ganbaran,
hura ere tantaz tanta dihoa handitzen putzu
handi bihurtu arte,
orduan, egurra ustelduko du.
Gero, zulo itzela geldituko da nire logelako
sabaian.

Tanta bakar baten beldur izateak tontakeria eman
dezake.

Ur ttantatxo batek nola ikaratuko zaitu ba?
Baina, bat eta bat hamaika dira,
orduan errespetua izatea baharrezko bihurtzen da.

Tanta soila kafetan nahastua:
hilgarria,
pozoitsua,
arriskutsua.

Edena, besterik gabe.

Norbait edo agian nork bere burua erditik kendu
ahal izateko.

Konponbide mespretxagarri eta arriskutsua.

Tanta gorria:

odola;

ziztada nimiño batek sortua,

beharbada ikusezina,

baina, hala ere,

odola.

Odol tanta gorri nimiño bat.

Bi pertsona,

bi esku,

bi odol tanta,

tanta txiki bat zuk eta bestea nik;

odolezko tratua,

filmeetan ateratzen diren horietakoak.

Odolezko anaiarte.

Tanta bat aintzinako koba baten sabaian irristaka
dabil;

mineralez eta urez osatutako tanta.

Karbonako kaltzikoa arrokan itsatsita utzi eta ura

desagertu egingo da.

Eguna joan eta eguna etorri, mendeak igaroko

dira

milioika edo trilioika tanta berdintsuk estalaktita

osatu arte.

Nire amonatzok begi lehortuak dituela eta, medi-
kuarenera joan da.

Medikuak kolirio pote bat errezetatu dio.

Egunean tanta pare bat jarritz gero, sendatu egingo omen zaizkio.

Azukrearen ordezeko gozagarriak kafetan,
zukutan eta postreetan nahastuta.
Tanta bat edo bi edozer gozatzeko.

Bazkaltzen zaudela
koipe tanta ziztrin bat alkandorara doa zuzen-
zuzenean.

Ene Jainkoa!

Horrelakoak ere beti niri gertatu behar!

Edozein kolore biziko tanta bat.

Tanta koipetsu eta lodia da,
ipitzuan edo fregonaren baldean erorrazita,
harrikoa, lurra eta beste mila gauza garbitzeko
balio duena.

Iragarkietako garbikari horietako zeinahi.

Lurrin edo kolonia tanta pare bat izan da emakume askoren arma sekretua,
gizon indartsu edo gogorrenak ere jasan ezin
zezakeena.

Dotoretasun itxura emateaz gain, lorratz erakargarri eta atsegina uzten duen tanta pare.